

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0067</p>	<p>Ezgaitasunaren balorazio eskaria/berrikuspena</p>
---	----------------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Pertsonak duen urritasun fisiko, psikiko edo sentsozial maila baloratzeko eta sailkatzeko eskaria da, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ezarritako araudia jarraituz, erakunde publikoek eskaintzen dituzten onurak, eskubide ekonomikoak eta zerbitzuak eskuratzeko baldintza berdintasuna bermatu ahal izateko.

GARRANTZITSUA: Izapidearen ebazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxanon errolatuta dagoen edozein interesatuk edo bere lege ordezkariak

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E089 Ezgaitasuna baloratzeko eskabidea](#)
- [E090 Eskabidea: ezgaitasun-gradua egiaztatzen duen txartela. %33ko edo goragoko ezgaitasun-gradua duten pertsonentzat](#)
- [E104 Dokumentu zerrenda ezgaitasuna ebaluatzeko edo berrikusteko](#)
- [E745 Izatezko zaindariaren zinpeko aitortpena](#)
- [E790 Ordezkaritza borondatez emateko eredia](#)
- Eskatzailearen edo borondatezko ordezkariaren NAN.
- Adingabeen kasuan, familia liburua eta **legezko tutorearen** NAN.
- Lege ezgaitasun kasuan, legezko tutorearen NAN.
- Osasun txosten edo txosten psikologiko eguneratuak.
- Eskatzailearen errolda-agiri banakakoa.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, elbarritasun maila onartu, deklaratu eta kalifikatzeko prozeduraren ingurukoa \(FAE: 22. zk., urtarrilaren 26koa, eta 62. zk., martxoaren 13koa\).](#)
- [1856/2009 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, ezintasun-maila aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa, eta abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua aldatzen duena.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu
2. Erregistratu, eskaneatu eta interesatuari kopia eman
3. Espedientea Bizkaiko Foru Aldundira bidali

NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK

Eskatzaileek Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan aurkez dezakete zuzenean eskaria/berrikuspena.

Jasotako ezintasun edo/eta mugikortasun baremoaren arabera, hau eska daiteke Udalean:

- Aparkatzeko txartela, urritasuna duten pertsonentzat
- Salbuespena Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergan.

Informazio gehiagorako, hitzordua eskatu Gizarte Langilearekin.